

Julen Rekondo

• INGURUGIRO TEKNIKARIA •

«Hondamenek kalte gogorragoak eragiten dituzte gaur egun»

■ Hondamenak ez direla hain naturalak diozu.

Askotan gizakiaren esku hartzea eta garapen ereduak ez dira arrotzak gertaera hauen jatorrian. Kasu batzuetan, lurrikaretan esaterako, adituek diote patuak gogor erasaten duela, baina garrantzikoena da larrialdi sistema egokiak edo prebentzio neurriak hartzea. Lurrikarek ez dute eragin bera Estatu Batuetan edo Turkian.

■ Bakoitzak aurre egiteko duen ardurak egiten du, beraz, 'naturalak' izatea?

Hondamen naturalak ezin dira saihestu, baina bai ondorioak arindu, eta garapen zientifiko-teknikoak egiten du posible. Adibidez, Japoniak eta Peruk hondamendi kopuru antzekoa izaten dute urtean, baina ez hildakoen: Japonian 60 bat dira eta Perun 3.000. Horregatik elkartzaren bidetik lortu behar da Hegoaldeko herriek Iparraldean ditugun tresnak eta ezagupenak izatea. Izan ere, neurri teknikoak badira: lurralde ordenakuntza, alerta goiztiarra edo emergentzia planak.


Baina, oro har, giza esku hartzea erabakigarria da. Askotan esaten da: 'Hemen ez da inoiz gertatu!'. Kontuz: Donostian, Ibaeta aldean, garai batean marismak zeuden lekuan eraiki egin da, eta jakina, ur-jasek problemak sortu zituzten.

Nolanahi ere, hondamenak naturalak izan ala ez alde batera utzita, argi eta garbi dago giza ekintzak ondorio are okerragoak izatea dakarrela.

■ Gizakiak geroz eta gehiago esku hartu du naturalen gainean. Hondamen kasuen ugaritzea ekarri du gizarte garaikideak?

Ez dut uste estatistika nahikorik dagoenik esateko

■ ■ ■ Natur hondamendien inguruan aritu dira azken egunotan Gasteizen EHUKo Arabako Errektoreordetzak antolatu mintegian. ■ ■ ■ Ez direla hain naturalak defendatu zuen Julen Rekondok herenegun. ■ ■ ■ Javier Armentiak katastrofismo bibliko hark nolabaiteko bideragarritasuna ere baduela esan zuen atzo.



JOSEBA OLALDE

Julen Rekondo

«Giza ekintzak hondamenek ondorio are okerragoak izatea dakar»

Javier Armentia

«Unibertsoaz dakiguna jakinda, katastrofismo bibliko hark badu bideragarritasunik»



JOXE LACALLE

■ Hondamenak, nolabait, naturalak dira zure ustez.

Nire iritzia osagarria da naturalak ez direla diogenaren ustearekiko. Izan ere, giza-kiok gara planetari kalterik eragin diezaiokeen zio nagusia. Nik planteatzen dut kanpoko mehatxurik ba ote dagoen. Nolabait, katastrofismo bibliko horrek bideragarritasunik ote duen unibertsoaz dakiguna jakinda.

■ Eta ba al du?

Bai, gizakiaren eskuak ingurugiroan batez ere eragindakoagatik baino probabilitate gutxiago ditu, baina badu. Astrofisikak erakutsi digu unibertsoa eboluzio etengabea dela eta aldaketa

horiek ez direla gure nahia- ren menpeko: unibertsoaren jatorria, izarren nahiz plane- ten sorrera eta abar. Nik aztertzen dut, adibidez, izar batek eztanda egin eta guri eragitea litekeena dela, oso

kasu zaila bada ere. Era berean, egiaztatuta dago eguzkiaren argiak lurra- ren historia geologikoan glaziazioak sortarazi dituela.

■ Eta, jakina, gizakiak ezer gutxi egin dezake kasu horietan.

Ezertxo ere ez. Horregatik, patua delako sailka- penean sartzen dut. Ego- kitu bazaizu...

■ Zein neurritan du parte patu horrek gau eta egun komunikabi- deetan ikusten ohi ditugun hondamendie- tan?

Ezertan ere ez. Kontua beste bat da. Lurretik hurbileko objektuak gure gainera erortzeko benetako aukera aztertu dut, historikoki doku- mentuta baitago. Izan ere, Ilargira begiratu eta zuloz beteta dagoela ikusten da. Lurrean ber- din gertatu da eta talka batek eragin dezakeen txikizioa hasi da iker- tzen: zer objekturen kon- tra jazo litekeen eta

aurre egiteko egiten dena, hemen posiblea baita esku hartzeren bat. Oraingoz pro- posatzen dena da ikerketa bat horrelako objekturen batek etorkizunean gure kon- tra jo dezakeen jakiteko, hots, medizinan erabiltzen den diagnosi goiztiarraren antzeko zerbait. Eta etorkizu- nean esku hartzeaz pentsatu beharko da: gai izango al gara Lurrean gainera datorren meteorito bat desbideratze- ko? Teknologikoki bidezkoa da imajinatzea datorren men- dean nolabaiteko patruila espaziala izatea Lurra babes- teko.

Luis Karlos Garcia
GASTEIZ